

Olatz Zugasti • BULUN-BULUNKA DISKOA EGIN DU •

«Sehaska kantu hauek
intimitatean entzuteko dira»

OLATZ ZUGASTIK bakarkako bigarren diskoa egin du eta *Bulun-bulunka* izena jarri dio. Hamalau haur sehaska kanta biltzen ditu, Resurreccion Maria Azkueren kantu-tegitik ateratakoak. Angel Unzuk egin ditu harparenak ez beste harmonizazio guztiak. Hemendik aurrera disko gehiago etor daitezkeela dio Zugastik, baina ez diola utzi-ko Benitorenkin abesteari.

■ Zergatik aukeratu dituzu haur sehaska kantak bigarren diskoa egiteko?

Beno, ideia ez zen nigandik sortu; Elkarlanean argitaletxeko Josebe Hormazurik esan zidan duela bi edo hiru urte gustatuko litzaiekeela nik sehaska kanta bilduma bat egitea, hemen ez omen dago eta. Ideia polita iruditu zitzaidan, gutiziazko lan horietako bat, baina denbora behar nuen.

■ Nolako doinuak ditu?

Lasaiak behintzat bai, lasaiak izan behar dute abestiek haurra lotartzeko direnez gero. Esango nuke badutela zerikusia handia sentimendu amultsuekin eta afektibitate mundu horrekin. Samurtasuna islatzen dute. Saiatu naiz mantentzen kantu horiek jatorriz izan duten edo



PABLO S. QUIZA

Hamalau sehaska kanta bildu ditu Olatz Zugastik bakarkako bigarren diskoan.

behar zuten giroa, nahiz eta moldaketa lan batzuk egin.

■ Amatasunak eraginik izan al du diskoa egitean?

Beno, ez dakit, pentsatzen dut baietz. Guztiak gara gu eta gure eraginak eta gure egoerak, nolabait esateko.

Pentsatzen dut eragina izango zuela kantuak emateko moduan: zerekin lasaitzen den gure haurra, zerk egiten dion onura...

■ Pozik gelditu al zara diskoarekin?

Bai, oro har bai. Angel Unzuk moldaketa politikak egin ditu eta beti gelditzen dira hobetzeko gauzak, baina oro har nik uste dut lortu dugula hunkigarria izatea. Gero, esango nuke Gabon giroa ere baduela, garai hone-tarako aproposa.

■ Duela zortzi bat urte atera zenuen lehen diskoa bakarkakoa. Zergatik utzi duzu pasatzen hainbeste denbora lehenetik bigarrenera?

Beno, parentesiak izan ditut, alabarena adibidez. Ez dakit, batzuetan behar izaten da. Iruditzen zait lehenengo diskoa etorri zela ni oso kontziente ez nintzen garai batean; kanta batzuk zeuden eta grabatu egin nituen, besterik gabe. Baina batzuetan

Etena

■ ■ ■ «Iruditzen zait lehenengo diskoa etorri zela oso kontziente ez nintzen garai batean; kanta batzuk zeuden eta grabatu egin nituen. Batzuetan hobe izaten da gelditzea»

hobe izaten da gelditzea; sumatzen duzu zerbait ez doala behar lukeen moduan, ematen dituzu pausoak baina gehiago zure etxean eta bakarka. Baditut kanta batzuk geroztik eginak, baina orain pozten naiz horiek argitaratu ez izanaz, errebisio bat behar dutelako. Orain berriro hartuko ditut eta handik eta hemendik ukitu.

■ Hemendik denbora batera beste diskorik ateratzeko asmorik ba al duzu?

Bai, nik ez nuke ezetzik esango, zirriborroan geratutako kanta batzuk berreskuratzeke gogoia dut. Bai, litekeena da.

■ Disko honekin kontzerturik emango duzu?

Ez, hori ez. Ez da kontzertuak emateko disko bat. Sehaska kantu hauek dirahienbat nahiko une berezietan edo une bakartietan intimitatean entzuteko, eta zentzua galduko lukete kontzertu batean. Beste testuinguru batean baten bat abes-tea bai, baina kontzertua ez.

Ainara Mendiola
DONOSTIA

ELKARLANEAN 1999


Oskorri
Oskorri & pub ibiltaria



Urgabe
Urgabe



Kirikoketa
Sakanatik Arballa Itipira



Alaitz eta Maider
Inshala



Epelde eta Larranaga
Elkarrenondoan



Eneko Labegorio
Nazio berria



Tirri tarra
Re + Fa



Oskorri
Iparragirre



Olatz Zugasti
bulun bulunka



Jean Bordaaxar
Adixkidear



Imuntzo eta Beloki
Louisianara noa



Alex Sardui
Txululuna eta arrosa



Tapia eta Leturia-Amuriza
Bizkaiko kopla zaharrak